Lur bat zure minari

Jose Luis Otamendi

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1995 Jose Luis Otamendi
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1995eko ekaina
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

POLDERRAK

Koordenadak

Almitza hazten den lekuetan bizi gintezke
Inoren saihetseko burdinen artean sartu eta itotakoei arnasa nola hozten zaien ikasi
Ibaiko sunda dute begiok eskuok urriko zeru bat bezala aldatzen gara
Berariaz dagoz aireportuak gugandik hain urrin laino itsuaz haruntzago
Ibaiko sunda du saminak ere, ibaitu egiten da oroimena zauriak ibaitu
Eta bakeak urpetu gabeko lurrotan elkar maitatzera egiten dugu
Alboan zaitudan egiaztatu koordenadak berritu
Eta atzokoan loak non lotu gintuen idazten dut
Idazten dizut jakitearren arrotz ez garen lekuan atzerritar garen
Urondoan pausatu garen orea lotan bezala ala abantean igaro gehiengoz bozkatu galernen peko
Erbeste ederra dateke zure bihotza urre gorrizko kaserna

Baina lurmendatu ezinezko talaiak ditu gure
maitetasunak
Baimendu gabeko eremuak ahora ekartzeko gaitzak
diren izenak
Haitzen gandorrak bezalakoak jitoak
daramanarentzat
Orduan libre ez garela aitortzen diogu elkarri
Zerbait hiltzen zaigula barruan eta bizi ez
gintezkeen herriak habitatzen ditugu

Itzartze

Boladan nabil maitasunarekin
Suteak izeki ditu haurren biriketan lahardiok hesiok hitzok
Gogaituta gagoz hildakoak plagiatzen
Eta datozen egunen kristal hautsietatik bihotza ez dela panfleto zimur bat oihukatuko dut
Talaiaria loak lotzen duela etxe jaso berrian
Alferrik iragarriko dituztela garai hobeak sismografoek
Bakarrik gagozala eta eder geure ezinean

Berriki ezerk salbatuko ez gaituen islak heldu zaizkit ibaitik
Ez gure libertadearen pareta lurmendatzeak
Ez gaua aldeztu nahi izateak zure begietara makurturik
Gure untziolek mamitu dute ehun hitzetara ekarritako abandonatze hau
Gerrian hildakoen liburua xerkatu dizut maizegi
Eta horren damu naiz

Ez dut salbatu nahi
Belar onaren ohantzean gozatzen zaitut

Lur arola

Isilak ez nau azpian harrapatuko
Maiz ezkutuan sartu beharko dut etxean
Auzoek ezagutu egingo naute nahi ez dudala
Zure bihotza betetzeko ez dut neurririk ematen

Irria dateke lanik bakartiena
Gure ninietan itsasoa gordeta balitz bezala
begiratzen diogu elkarri
Lurra orain beltzagoa da
Zoriontsua naiz minbizi baten hegoaldean sortu
nintzelako
Minak dakien doitasunez erreko ditut gogoan utzi
zenizkidan
Autobus azulak

Bizitza nola doan ikus daiteke
Edozein laban-ahoko zinemaskopean
Otoi eskatzen dugu biharko eguna zabaldu dezan
Bata bestearen arnasari eutsiz
Oinetakoak egin zenitzake nire arnasarekin edo iltze
baten

Zorroztasuna

Goizeko argitasuna gordeko dut nik zure arnasaren
kaiolan

Eta etorri beharko dugu berriz kamino urrunei
buruz negar egiteko

Eta elkarren premiari iritziko diogu askatasuna

Lur-min

Behea arrakalatua da du gauak eta ni zure bihotzean bahituta
Mendeku hartu nahi dut etxerik etxe bilatzen gaituzten aginduengatik
Gehiengoz aldarikatutako bakearo honengatik, horrela maite dugu elkar
Zorionaren erdilanetara ez gara iritsi gaumina jitoak dakar
Abandonoak zulatutako gorputzak transkribatzen ari naiz
Ibaitik atera hatzak zaurietan sartu eta idatzi botila hutsak jiratu eta edan
Nire maitetasunak zartatuak dauzka zaintiratuak
Inor ez dagoan tokietan ari du euria eta nik ezin zaitut han gozatu
Krimen beltzak bindikatuko ditut, itoen arnaskak gaitzak dira artxibatzen
Errudun naiz neure sakonera guztian eta libre nahi dut
Borobilagoa da ilargi etsaia, beti enfokatzen ditu gure etxeak

Nola defendituko zaitut astunegiak gara haizeak eramateko
Nola lagunduko dizut nire bihotzaren koordenadak sekretupean dira
Gure izena entzun uste dut teilatu artean
Ederrak dira eta urrunak gauaren bitarteetatik ikusten diren bozak
Zure bihotzeko lau haizeak lau urtaro lau zuloak hartzeko nator
Arbola azaletan idatzi ez direnak esateko
Behiala nik arbuiatutako armak hartzeko salbuespenik gabe
Nire begiak dira hiri honetan hautsi ez diren kristal bakarrak

Azken lurra

Inondik errenditzen ez den ura da gure maitetasuna
Zoratu egiten da
Hegazkinak islatzen ditu
Teilapeak iluntzen akorduetara amarratuta
Egitate mingarri anitz eman da ontzat
Etxeratze hitsen durundioa inongoa izatekotan
Eta minbizia aukeran
Zein erdi arotatik zein bestiariotatik irten du gure maitetasunak
Itutez jota hiltzeko ginoan den zeruak

Geure burua beste etsairik onesten ez duen lurra
Jendea batera bizitzen maitasun froga beraren hegian
Minutu berean lurmutur berean
Gure maitetasunak ez daki
Ez daki hegan
Ez da kalatxori
Darabiltzan orratzek bestelako iparrak dituzte xerka
Itsasgorak ekarriko ez dizkigun iheslariak
Itsasbeheran utziko ez dugun edertasuna

Hau da agin ziezaguketen azken zerua
Ez dago inor ebakuatzerik
Hildakoak ohean direla abandonatu ditugu etxeak
Hipermerkatuetako aparkalekuak dauzkagu
igandeetan elkar maitatzeko
Hegazkinak teilapeak eta itoak estu amarratuta
Zu ez zaitut abandonatuko
Azken ordutan ez da bonbarik lehertu baina ez da
heldu bakea

Talaia galduak-1

Talaia guztiak galduak ditut eta ibai zokotik zelatatzen zaitut
Odolez hustu ezinik nabil bihotza, zure odolez nirea
Beti izan dira bi gure bihotz biak
Ezponda honen aldatz beheran iluna kudeatzen gagoz
Ez nazazu arren memoriaren haitzarrietara kondena
Etxera ezinik nago ertz honetatik begira
Orube urrun bat bazenu bezala bihotza

Negarra bozatzeko beste txara hazi da nire hortz-obietan
Etxe hustuetako enpapelatuan dira behialako maite-izenak
Eta bihotzok bi diren artean erdibi dagoz, bi erdi
Eta zelan zagozan asmatzera egiten dut
Zure eskua asmatzera loak tatuatu amildegien bila
Eta jitoak itotakoen patsa dakar
Ez nabil ez zubi lehertuen bila ez aintza ez ezein atzerriren bila

Gau itsaskatu ezinotan zein urrun dagozan bionak,
zein urrun bihotza
Ahantz zaitzadan batu den lainotik hartu dut arnasa
Hor kaleak erratzez garbitzen dituzten goizak ez
nau aurkituko berriz
Neure ezinak kainoituta bizi naz eta gauero
amatatzen da argi bera
Ez nazazu inoren duintasunagatik maite

Ondare

Itoen begiak belakiak legez hanpatzen dira
Flotatzen dutenak dira erdokatan josiak ezpondetan
kukutuak
Hilotzak — ontzibular errimeok — akorduak
sehaskatzen ditu egonak
Ibaia almitza bezala ari da hazten, jauzi librean
amilduko naiz zure bihotzeko
zuloetara
Lohiartzekoa erantzi eta oilariteei itxaron
Gaitz-hartuen zerrenda berritu eta hezurtokiak
jagon
Mindutako poemak idazten ari naiz ilunean
ikustekoak
Nireak zureak dira atejoka hauek mizto hezigaitz
hau
Gure aldarriek ez dute erantzunik gure maitetasuna
gerrako meritua da titulu
gaitzesgarri bat
Ulertzen al duzu nire isiltasuna orain
Zergatik gorde dizkidazu itsasgain hautseztatuok
ontzi hondarratuok gordean

Itsututa nago entzun nezake ordea itotakoen sonar-a
Haitzarrien xerka dabil gure hitz ederra dira
Nire hitzak ez dira hautazko eldarnioa ez dira
ebakuazio bat ez dira literatura
Beti bilatuko diot aho bat zure negarrari
Bakarlan estua da bertotik hona itzuli behar hau
Beilatzen ditugun begiok balakatzen gaituztela
gauaren tarratada artetik
Irekiak hondarrez berdintzen ditugu minez
Ez gara kukutuko, itsasoaren lauzak altxatzekoa
naiz
Bihar gozatuko zaitut, gaurtik maite zaitut bihar
Urpeko intziriz burniz trasladoz zamatu dut nire
mina
Almadiazain nabil hildakoen gainean
Aspaldi erabaki zen garaipena adina sufrituko
dugula maitasuna
Biolentziari lotuko gintzaizkiola zalantza izpi bat
defenditzearren
Aspaldi mauser bat bezala amaren zulotik atera
gintuztenean itun bat bezala
Zuztar bat bezala, gaurtik maite zaitut bihar
Ulertzen al duzu nire isiltasuna orain

Harresiak-1

Maitetasun hau erdizka egina dago
Osatzen hasi eta premia larriko ekinkizunek
Bertanbehera utzitako lana
Gorputz baten bila abiatu eta ortozik itzuli, musu huts
Nire maitetasunak ez daki zugana ez da luiziz aseko ez airerik ederrenez
Hildakoak zelan hazi ez dakit noiz ureztatu nondik inausi
Delibera liteke sufritzea
Gela batean ituteak jaregin maitasunarren
Baina egunerokotasunaren aurrean zer lezake bihotz siku batek

Erdizka bakarrik egindako maitetasuna da gurea
Bakarrik egindakoa
Erdia egin eta beste erdia esan
Nik ere esanen dizuet galtzerdiz bozatu dizkizuetela zangoak
Zuek zaretela gure ur bazter galaraziak

Zuei apartenitzeko ari garela nazioartekotza eztabaidatzen

Erdizka maitatze hau den gaitza

Ogasun aitorpenetan maite-izenak alderantzea

Arbola zuztarrekin bisabisak ditugula

Portu agortuetan gagoz urak noiz beteko

Erdizka gagoz ordea

Bakarrik gagoz

Gure oinazpiek oroitzearren egindako ahaleginak

Handiago dira orain

Aitorpen

Lerrootako txarrantxatik ate arratsalde hau ulerkaitza da
Ez gauden etxe bat bezalakoa
Zailagoa behar du ezer ez duenarentzat bestek ukatutakoarekin bizitzea
Errudun naizelako zoriontsu naizelako maitasunaren helburu ezin du meniak izan

Bihotza paraje haize-ezkutua dut
Ibaiaren alde banatan dira duintasunaren koordenadak
Lugon Le Muret-en
Akorduak uztak erreko ditu
Gurean bizitzea arrain buruz betetako oheetan etzatea da
Kakoan eraitsitako etxe bateko giltzak dituzula jakitea
Eta inor datorrenean hustu egiten dugu herria orube abandonatu bat bezala
Gauez garai bateko hormak eta leihoak asmatu beharrean gara

Inoiz eskilara-buruan hilik agertuko den gizona irudikatzen
Dei sor batek atzerrian hiltzera ekarria
Eta errudun sentitzen naiz egunero
Baina ez orduero minutuero uneoro
Eta neure bizitza kontatzen ari naiz

Gutuna-1

Aurrera joan gara eta beroa da gaua, zelan zagoz orain
Ibaiaren alde banatan dago hotza berokien barruan amarratuta
Gu itotzera eginen dute gero berokiok
Zure zainen ildoetan zure akorduaren paduretan
Beti euri handitan bezala bizi gara urak noiz hartuko bazterrok
Eta ezin dut inork bakera zaitzan itxaron
Maitatzeko paperez iziotu hegazkinak dauzkazu
Maitatzeko inoiz betetzen ez diren ostatuak dauzkazu
Zurekin bildu beharrean nago, ez digu inork deitzen
Lehenago jakitera ez nizuke inoren alde minutu beteko isilaldirik aginduko
Ez zintuzket ezpondetan bilatuko
Maiteko ez banauzu ere hor dira
Hor geldituko dira, hor teilatu zapuztuak patio bustiak, hor
Eta beste aldera igorri gutunak bueltan datoz
Hartzaileentzat hilda gagoz

Etsaigo sakon honetatik maite zaitut jazargo zaharmindu honetatik
Ibaiak aldiko zeru bat darama kristal hautsi bat ate bat
Ibaiak gauak oretzen ditu itoen eztarri zuloan
Nireak beste dira zure txaran kakotutako atorrak mezuak
Badakit itzarririk zaudena
Nahi baduzu maitasunak sortu kalteak neuretzeko bil gintezke
Nik beste aldera beharra daukat etxeak zelan hustu diren ikusteko
Ni gabe zelan maiteko dituzun gozatzeko
Ez dakit bakeak zenbat mendez galarazi digun elkar maitatzea
Aurrera joan gara
Zure begietan irakur nitzake orain azken berriak
Maitatzeko ez dut itxarongo beste seinalerik

Jabetzak

Ez dizut desagertuen aintzarik opa
Iritsiko ez den lur hartze bat bezalakoa
Elkarren begiei parke hutsei bezala begiratu
Irabazi eta galdu dugunaz galdetzen didazu, irabazi eta galdu dugunaz
Loaren artxiboak orrikatzen dihardut, zain deslotuak
Gerturago ekar zaitzaketen albiste latzen bila
Hotz-hotzean maite zaitudala diot
Eta diot etsita nagoala ez litekeelako dakidanarekin ezer salbatu
Ez adiskidantzarik ez auzorik ez lur uraseturik
Hobe litzatekeela agian bihotzean zer daramagun jakingo ez balitz inoiz, inoiz jakingo ez balitz
Gerta daiteke berandu izatea lur laketu ezin bat maitatzera egiteko
Eta akordua jakiekin batera mahai honen aurretik iragatea

Deika ari natzaizu baina talaia aski garairik ez dago ikus nazazun

Ez dizut maitetasun hau poema perfektuetan
bindikatzeko eman
Ez dizut seinale sekreturik jarriko balkoian
Beti jokatu izan dugu etxekoak gorrotatzeko bezain
libre
Gorroto hau zaharregia da beste inon etsi dezan
Ni naiz zure bihotzaren kargu nagoana eta bertan
nahi dut
Laztan nazazun idatz diezadazun mintza zakizkidan
harrotutako ezponda bat bezala
Gerta daiteke inoiz ez aurkitzea galdutako frogak
Gerta daiteke bulkada eder batek ezin izatea gizaldi
beteko abandonoaren aurrean
Orduan betiko giltzatu diren ateak eta birritan
habitatzen diren hustutako herriak
uzten ditu zulatze lanak
Berandu erabakitzen diren maitetasunak bere
ederrean zamakatu ezinak
Eta eskua luzatzen dute itzalek maite zaitzadan
urrutiminez
— Min bat behar dela itzultzeko —
Eta zeure baitan garraia ditzakezu gela hau zubiak
orriok
Baina mezu hauek ez dira ez zure ez nire bihotza, ez
dira inoren bihotz

Ezinaren argi

Lur hau bazina bezala ez zara aldean eroan
litekeen armarria
Ez zara zuztarretik erauzi laharra ez paparrera bildu
gura den kanta
Gerri bakoitza da defenditzeko ezponda
Ez naiz doluz jantziko gure maitetasunagatik
Ni ez naiz hilkantaria ez ditut trenen
abistuakharrikatuko
Oren berri bat nahi dizut bihotzeko hegoalde
birreraikitik

Dena amaitu dela badiot faltsuketaria naiz
Mintzo garen bihotza ikasibako kreolera da
Atzo hasi da berriz ramadan atzendu bat
Zure eta nire ahoskeran kabitzen ez diren laharrak,
eta hor zauzkat
Goza zaitzakedan lurra goza zaitzakedan gaua
itzalekin lehiatu beharrez minak
Meatze abandonatu bateko isiltasuna legezko
galderak

Ez gara elkar besarkatzeko kosta noiz hondarratuko gagozanak
Jitoak kelarrezko ferrietan daroa akordua
Eta lur honek badu ni ez naizen zenbait ezponda garratz
Izen bat etorri ezinak idazteko erak
Bertan dira gure ezinaren argiak
Uki nazazu, zure hatzmarkak aspaldi ezabatu ziren nire gorputzetik

Uzta

Gure zauriak nazio bat beratzekoak ziren
Almitzaren gainetik eta laharraren gainetik egitekoak
Baina ez dago orain arnasa hartzen ikasterik
Okel sumindua eta beldur sakona
Batzuk zutik lotzen ditu heriotzak, besteak ez
Batzuk agondu egiten dira
Batzuk etzanda baino ez dezakete maite

Euriak hartu ditu hotelak eta muinoak, zubiak eta bihotzak
Igerileku hustuetan gabiltza adore bila
Ez dago inor, ez dago Urrinera jo du laino-tutuak
Bizpahiru uda eta ibaiko uretan akanpatuko dugu
Liztorrak heldutako mihina da gure askatasuna
Dei larri batek etendako maite-solasa
Haizeak itxi eta ireki dabilen atea

Gure adurra da besteren lekuan jartzea
Zuloak egin eta herriak lumendatzea
Gure aldia berritu ezina da truka ezina da, ezina da

Norbaitek emango dio lur zulogileari
Ez dut inor bakarreko zorionera kondenatuko
Nire maitetasuna erabakita dago

Kutun ostendua

Nik eramango zintuzket berotu ezin dudan lur honetatik urrun
Maleta batean ibaiaren jitoan eraman
Baina ez zagoz
Batzutan ez gara garaiz heltzen
Entzun dituzu albisteak
Oraindik ez gara ikustezin
Ez gara kostan finitzen den jazargoa
Ez almitz gorria ez ibaiko hondarra
Ez otoitza etena arratsean
Zeru honen zuraje maiztuari jarraituz eramango zintuzket
Hor aurrean bakandu egiten dira etxeak bidea estutu
Bizi ez direnei zaie haizu ahaztea
Mugatik hur gara bertako
Beldurrak hartuko ninduke « hara, ez dakit han nor bizi den»
Eta eraman egingo zintuzket, tokia gogoan atxiki eta joan

Baina ez zagoz
Falta bazara ez dago ezer nirerik, ez dago ezer
Hortaz gure maitetasuna testigubako aldegite bat da
Soro sutu bat gauean
Nik ekarriko zintuzket lur hau berotzera
Baina ez zagoz
Ez dago denok bizirik ginen garairik
Erlojuek ez dakiten ordu batek jo du
Ibaitik atera gorputzek ahobatez rapeatzen dute
Ezin dela gorputzik gabe maitatu
Ezin dela talaiarik gabe hiria zaindu
Ezin dela ezin
Eta ekarri egingo zintuzket estrata lehertuen bidetik

Lertxun-marrak

Duindu ezin den gosea ospatuko dugu
Ez gagoz heriotza baten testigu izateko
Ez gara almitzaren zaindari ez poema batentzako doinu
Begira, ni nagoana lehenago beste gorputz batek berotutako lurra da
Eta zertu ezinean gabiltza abandonoa
Giltzez itsututa dagoz erretenak ur hodiak lehertuak
Baina beroa daukat odola zurea balitz bezala
Urruneko herriak orrikatzen ditut
Luzea da zure zorionera lotzen nauen soka
Nahi nuke beste behin ukitu zeharka bederen
Ilunabarrez han etzan keizuaren beste muturrean
Oraindik dena galtzen hasteko balego bezala

Ez dit ardura noren aldamenean lehertu den azken bihotza
Defuntuen atorrak jantzi ditugu haien ogitik jaten ari gara
Ibai ertzeko etxeek ez dute lurrera nahi, giltza guztiok batzeko dagoz

Errukirik gabe maite duen jendea gara
Itotakoek gaua atoian daramate adiskidantzen urre beztua balitz bezala
Goizak argira dakar ilunak ostendutakoa
Begira, badakit elkarrengandik urrun hilko garena
Ez naiz inoiz orain baino zureago izango
Gauaren zepoan harrapatuta gagoz

Harresiak-2

Zerbaitetan irabaztun izanen gara
Entzuidazu, zaila dago karea bilatzen
Gauza asko daramagu gordean garbitu ezin direnak asko
Salbokonduktoa zuten maitasuna poeta kaskarrek
Lehia garmindu bat bitartekotza errimea
— Zain bakoitza bere tokian lau zuloak zabal —
Eta ezagutzen zaituena urrun duzu orain
Mintza zakizkio negumineko laharraz galdutako lagunez
Sufrimentu guztiak ez direla hautazkoak
Heldutasun guztiak ez direla behartuak
Koordenada soka berean dagoz Le Muret eta Lugo
Besteren ohar-kuadernoei ostutakoak dira gure enkontruak
Ez da ez gure algebrarik ez gure lainorik haizearen oinetara
Beti elkar despeditzen ari den jendea omen gara
Bere etsia non sarturik ez duen begirada
Zuk zer diozu mendiak tarteko maitatze honetaz
Zer galdua badaukagun seinale jo duzu inoiz

Sentimentuak deshabitatzen dihardugu indarrean ez diren mapak bezala
Itunetako eranskinetatik eta agindu zaharminduetatik aldegiten
Gurkera tajutzen du nire memoriak orube urasetu baten aurrean
Aurki ilunduko du, sartuitzazu geranioak
Orduan ezin ikusiko dugu elkar
— Karez zuritu gabeko idazkiak paretak —
Eta herrien izena ahoskatzeko moduagatik maiteko zaitut
Harresi bat izan daiteke maitasunari emandako izen bakoitza
Eta alde bi ditu egunak bezala bihotzak bezala bi alde
Berdin da oinpean zubiek behera egiten badute
Etxekoen argazkiei su ematen badiegu hotza kentzeko
Banator, hesolen errenkadatik destatzen diot iluntasunari
Berriz ere zu zaitut ments
Eta ez dakit zer dagoan defenditzea deliberatu genuen bakardade mendre honen atzean
Lugo eta Le Muret soka batean

Gutuna-2

Zatoz
Gela hustu usaina dario zeruari
Arrea eta bakartua azpia
Agorril miragarria duzu gorputza
Eta almitzak hartuak ditu hiriko biltegiak eta arimak
Ibaian dira atorra pizuak
Behatz zurminduak
Helbide ezabatuak
Esnaera larri batean bilaka liteke maitetasun hau
Olatua dator olatuaren gainean
Larderiazko muga-lurrotan iratzarri behar zaitut
Maitetasun berberau zezelduko dizut
Noiz ahantzia noiz jazartua
Urruneko argi seinaleak atzean utzitako auzokoak
dira
Ala maitea dakarte maiteagana
Gainez egindako lur zerrenda onargarriak direa
amets hebainduok
Ezin dut
Baina gatibu hartu nahi ditut bizirik heltzen
zaizkidan mezulariak

Zure hitzak buruz dakizkite ez dira zu
Ez zara zu
Ez zara

Zatoz
Erratu egin dira aurreikuspenik baikorrenak
Koldarregia naiz maitetasun hau bakarrik
defenditzeko
Nire liluraren lausoa altxatu du ibaian
Eta laino-tutuak entzun litezke eskualde osoan
Seinaleok jitoaren akordua ederragotzen datoz
Hor behean behar dute zurekin ez naizena
badakiten eskuek
Non inprimatuko dizut morse ezindu hau gero
Lantoki zarratuok kale hustuok non
Luiziak dauzkat harrotzeko
Giltzak batzeko
Deklarazioak zuzentzeko
Gehiegi dira galdu ditudan hiriak galdu zaitudanak
Baina behin ere ez zaitut konkistatuko

Zatoz
Beste urtebetez bizi gintezkeela agindu didate
Badakit auzolanak aspaldion esangura mina duena

Lugintzara bueltatu zaretela
Eta aboro ez zaretena ereiten duzuenaren jakingura
Ez zintuzket nahi inoren agendatan abarotua
Ez zintuzket maite-erakutsiekin asetzera egingo

Zatoz
Nire hitzak ederregiak dira izen gozoko hirietan zu
gabe etsi dezaten

Galbidea

Oroitzearren ari naiz itsaskatzen ibai larriok
Oroitzearren urpeko artxiboak orrikatzen
Beldur naiz zure begiradako padurak galtzeko
Gela giltzatuak gauari ikasitako lurrak
Bihotzeko zuloetan gorde nahi dizut arbola
zuztarrekin hitzegindakoa
Ibaiaren bi aldeetan ez dabil inor
Dei egiten dizut autoak argitutako soro
abandonatuetan
Atzo festa zena gaur suak ez du nahi
Aski litzateke keinu doi bat
Zure irrifarraren lurralde eskuragaitzetara heltzeko
Aski litzateke gogoan miatzea — aulki bat hemen
euria hor —
Baina lainoak segizioaren bozak batu ditu jitoaren
gainera
Urpean zezeldu helbideenak almitzarenak
Hemendik entzuten direnak
Den ederra
Maite zaituenak baino ez zaitzaket galdu
baldintzarik gabe
Eta gaua zelatatzen dut eta beila egiten diot lur honi

Muga

Ez dut nahi zure malkoek gorputza erre diezadaten berriz
Autoak sutan dira muinoen ostean
Almitzak hartzen ditu hiri izandakoak itsaso izandakoak
Euria egingo duena badakit
Gaurkoaren antzeko eguna izango dena
Miliotik gora behar dute honezkero zorionari ukatutako laztanek
Tristuraren gainean eraiki beharko dute nazio bat
Azokak zabaldu errepideak berritu
Beti egongo gara urrun ezartzen zaigun epaia entzuteko
Gurea bezalako haurtzaroez ari da sua leihoetan
Gorroto diot akorduaren gatibutza errime honi
Arbasoei seinaleak egin eta desegin
Gauero beste muga bat ezarri eta hausteari
Azkena dela agintzen dizut baina hegazkinak amarratuta argitzen du biharamunak
Ez dut asmatzen maitasuna eta herra bereizten
Geuk beste inork ez ditu gaindituko gure amodioaren lerroak

Esaiezu maite dena beti urrun den lurra nola den gurea
Esaiezu badirela suaren negutegiak eta denborarenak
Guk erretenera botatako giltzek ez dutela aterik zabalduko
Esaiezu poema hau irakurri eta erre dezatela
Bihar deituko dizut
Batzutan denok izaten dugu hiltzeko gogoa

Uberak

Zer esanen duzu nire alde
Txostena zarratu aurrez galdeketan deituko zaituzte
Garbitzeko dago nire bihotzaren urondoa
Itzalak soma nitzake zure odoleko beiraren ostean
Arrotza iritziko diozu nire mintza moldeari
Oheak hoztuko ditugu eta artxibo sekretuak ireki
Bizitzak manera anitzak ditu sentimentuak
adierazteko lekukotza lausoak

Ez dut aldegin nahi zure gorputzaren harresietatik
Zure eskuen negutik zure negarraren karetik
Aitortuko dizut beti espero izan dudala
Epaia jabalduko zidan froga aringarri bat
Baina zorrotz jagonda diraute ur bazter biek gure
bion bi bihotzek
Maiteko ez maiteko aho batetik parke batera zauri
batetik zita atzeratu batera
Ez al dira zoztorrak baino haziko heldu den urtean

Non babestuko duzu nire gorputza

Izanen dira testigantzarik eskatuko ez duten
bulkadak eta edertasuna
Ez nondik zatozen ez nora zoazen galdetu gabe ur
azalari jaioko zaion eskua
Gure adoreak azkenik ez balu bezala idatziko duena
Hotzak behar dute urek sasoi honetan lainoak
hartuak bideak
Txostena itxi ostean ez nazazu bilatu arbola azaletan
Ez testuetako lerro azpimarratuetan ez ezein
ikurren beroan
Zure isilak beste indar du zure hitzak
Min erre hori agindu genion elkarri luizi aldagarria
manifestu atzendu bat
Bihotzak ez du beste aginpiderik

ALMITZA

Barne-lurrak

Ez dakit atzerria noiz hasten den
Zein paralelotan, giharre erasan edo dekreturen
errenkadatan
Testiguak dauzkat nire bakardadearenak
Inongo jazargoak urratubako txarak, zurearen
testigantzak bihotzeko urondoan
Traidore eta seme kuttun izendatuko ninduketen
ahal izatera
Biharamunerako agindu eta bezperan desarratu tiro
maitemindua naiz
Bizi gareno gaua bertan ematea galarazten diguten
gorputzekin egingo dut amets
Betiko nahi genuke elkarrekin baina beti dago
aurrez oroitu beharreko zenbait

Gure txostena amaitzeke dago
Frogak batzeko dagoz deklarazioak hartzeko
Fitxategi nahaspilatsua da samurtasuna
Nork eskatuko digu orain herriz aldatzeko ostatu
maiztuok abandonatzeko
Alferrik jarriko dute musika altuegi

Ba al da askatasunak ahantziko ez duen
fusilaketarik
Ez gara libre baina libre gagoz elkarren mina
izateko bederen
Orri baten barrena behar dut
Maite ez banauzu poema hauetako hesola erorien
artean kausituko naute, bakarrik
hilko naiz
Telefono dei batez neuregain hartuko dut oinpean
dudan lur hau
Alferrik jarriko dute musika altuegi, isilean beti
gordeko dugu zerbait

Idorte

Maria-tauletan asmatzen dugu hondamendiak
zelan batu
Errutinazko ontziratze baten antza behar du
Igande arratsaldeko ostera
Sukaldeko leihotik ibaira begiratzea
— meridiano hariekin zintzur eragin diegu
mila gabeziari
eta horrek ez digu arintzen porrotaren mina —
Ez du hemen uholak xerarik sastakaien abistu azula
baizik
Odolak egia gatzatuak dakartza
Luze jotzen du etxera bideak
Gela bakoitza akordu minberen etzangu da
Edabe hitsak irentsi ditugu karrika beltzetan
Ostatu estua da bihotza bakarrik denarentzat
Ur handitara inor ez doa
Nire deklarazioa mozkor-negarra da
Merkatalontzi legez atrekatu du gauak gurean
Haurtzaroaz oroitzen gara bake garaietan bezala

Indusi

Zure begiak aspaldikoak dira gainera etorritako harriak bezalakoak
Loa galarazten du haitzetatik botatako gorputzen artean
Norberea ez aurkitzeak, ez sorbalda bat ez berna-hezur bat pendizean
Inoren bisaia adarbegi ebakietan aurresusmatzeak zoratzen digu loa
Kamioien memoriak irakurtzeak isiltasunarenak
Hurrena ez gaituzte hemen bilatuko

Adore izateko pintadak margotzen dituzte
Eta egunbeteko poza ematen digu laztan batzuk sabel bazterrean botata topatzeak
Lur eman nahi digute
Gainera datorkigun lurra dugu gure aberria gure amodioa
Oroibelarra hazten da euskal etxeetan
Bizirik eman nahi digute, gure maitetasuna luizi bat da

Urria

Hemen maite banauzu hemen behar dugu
Abiapuntua aldatuko dut bertora heltzeko
— besarkada batean batu litekeen lurra
gizon-emakume bi adore berritu ezinari lotuak
arbolak jitoa jagoten gorputz bat abantean —
Akorazatuz erein bihotzeko urondoa
Eta bizi, atzean itsasoa baino ez dagoala jakinda bizi
Kargutik kentze bat baino inportanteago
Albiste txar bat baino mingarriago, eta bizi
Askatasun dekretu anitz madarikatuz
Minbizi baten hegoalde beroan bizi
Zauriok irabaziko ditugu nahas-mahas honetan
— gorputz baten lorra akorduaren urlotuan
nortasun agiri bustiak norbait urpean maite izan
telefonoz dei egin eta bozatu norbere boza
hain urrin heltzerik ez dutelako hitzek inor atoitzera —
Bizi, gurtuko ez dugun aldare batean
Gorazarre aitorbako batean
Ez naiz joango hemen maite bainauzu

Kale bustiotan
Ibaiaren emana leiho diren honetan
— zergura gorde lezake begira dagoanak
minaren kurtinen ostean,
laino-tutua beti norberari ari zaio baina —
Sufritzen dugunak ez digu edertzen elkarri diogun
herra
Hiriei idatzi beharrekoa ez da agortzen zure
begiradan
Ez nire adorearen luze-zabalean
Hemen maite nauzulako bizi gara
Joango ez garelako maite iruzurtu ezinezko orainean

Izotz beltza

Ausikika ari zaizkio hostoak zeruari
Ez naiz German Rubenach
Ez naiz Johnny Rotten
Ez naiz Monzoneko Telesforo Bizirik atera banaiz
ere minaren segadetatik hilkintza
handietarik
Ahazmen sakonari atzipe egiteko ginoan izan arren
oraino

Itute bero honi eutsi diot
Soraio agertu natzaio hamaika maitasuni
Irrifar zurminduetan irauten ikasi dut
Zaharragoa naiz horizontearen ubera baino
Ez diot haizerik eman nahi inoren etsiari

Ezinezko leloa da maitasuna garbia zitekeelakoa
Ez dago ezer garbirik
Odola xuria da eta izotza beltza gure oinetan
Beldurra diot paduretako hondarmuinoen epaiari

Inorenak ez diren lurrak
Inorenak ez diren bihotzak
Inorenak ez diren orenak
Etxean sumatzen dut gauero Susana Arregi
eskilarak igaiten
Eta Sid Vicious ondoren
Eta Urkiagatar Estepan ondoren
Baldintzapean maite dugu, baldintzapean bizi
Aurki loak lotuko nau lahardi itzali bat bezala
Nire pozaren alde txalo egin dezadan eskatuko
didate
Neure tristuraren armadan izena emateko
Erraza da maite ez denari barkatzen
Honek behar du gure sasoia, Susana Arregi
eskilarak igaiten

Urrutimin

Ez iezadazue deitu itoak identifikatzeko
Utzitzazue jitoaren ibaian
Utzitzazue bihotz baten zokoan
Behiala ibilitako lurrak sutan dira orain
Ilenti bilakatu dira bero maite izandako ezpainak
Aurrera joanak dira lastargi ederrok
Ezingo dute aurton euskararik ikasi
Ez dute etxerik jasoko libertatearen eguteran
Bilaitzazue euriak garbitutako ogasun aitorpenetan
Bilaitzazue ohe hoztu berrietan
Igor iezaizkiezue mezu zuzpergarriak
«...badakizu non duzun etxea»
Iluntze bakoitza damuari aitzi hautsitako menia da
Itutea sukaldeko mahaian esku bat akribilatu
ezinean
Isilaren indarra ebatzi genuenetik zenbat ume jaio
den ikustea
Hotsegiezue maite-izenez zubien alde honetatik
Hotsegiezue beti azkenaren ostean aukera berri bat
badela sinesteko gertu balira bezala
Hotsegiezue beti euskal etxeak urrun direla esateko

Hildako batek prentsaurrekoa deitu du ileapaindegi baten aurrean
Hil egingo zintuzketet baina zeuekin bizi naiz
Zeuen paparraren berora biltzen naiz beldurrak hartzen nauenean
Batzuk ogitara eta besteak ahazmenera jendeak desfilatu egiten du
Luiziz bakarminez — leba leba — handi datozen uretan

Goizaren labar

Odolez dautza talaiariak
Alferrik txerkatuko ditu ganduak muinoetan
Ez genekien etsaiak eder zitezkeenik
Gu geu etsai eder gintezkeenik inorentzat
Ez gintuzten horrela hezi

Bisaia beztuko dugu itxadoteen ikatzarekin
Gozotasuna ostu gerri lagunkoietan
Eta ok eragingo digu harresien kontra adiskidantzak
deitoratu beharrak
Bideari lotuko gatzaizkio akordua dugula
itsuaurreko

Neurriak hartu dizkiogu samintasunari
Telegrafo hariak eten ditugu
— buruz-buruko hizketak bakarrik dira haizu —
Zubiak lehertu bihotzaren azken aginduen arauz
Ez dakigu hobeto bizitzen

Gutun galarazietatik erauzi hitzekin zumardiak nahi
dutugu

Jabalezinezko zauriak diren ibaiak
Diren direnak gure ezinaren ezpain direnak
Hotzak bizi gara eta etsiak hartzen gaitu
Negarra eta irrifarrarekin berotzen gara muga ondoko herrietan

Itxaron-zerrenda

Euria ari du okerka zubien gainean
Ibaiaren jitoaren gainean ari du
Negar luzeko gauen gainean
Haurren jolas galarazien gainean
Nire bihotzak karroinduta dauzka zuloak
Badira akorduaren errakuntza ederrak
Derrota handiak eta txipiak
Guruinak adiskidantzak isilpean jaten dituztenak
Badira itsasoa tarteko eskatzen duten maitetasunak
Estadioak
azokak hondarratzeko handitzen direnak

Inoiz erabilitako arma laztantzeko baino barrurik ez daukat
Barrurik ez zeruaren arrakalatzea galarazteko
Nondik jausiko dira hegazkin jendez beteak gero
Badira zapalduko ez ditudan amildegiak
Eta orrikatuko ez ditudan artxiboak
Badira amore emateak eta heriotzaren garaitzak
Mendien ostean galduko diren bihotz urrunak eta agortutako errekak

Beti izango dira ordea gogo okupatuak ele
liberatuak aldarrikatzeko
Arrotz ebakitako maite-hoskak herioan
Dena amaitu aurretik
Aspaldiko gorputzak ukitzera itzuliko den eskua

Sabelizketa

Ogia banatu duten garaian lo nengoen
Zu zintudan ments ez bakea
Bitartean mindu egin da elurra
Ezkaratzetan
Itoen ubera guritu du jitoak
Eta almitza bihotzeraino haztera dabil
Beti aurki nitzake ehun arrazoitik gora
Inor maitatzeko
Ezinaren testigantza anitz
Hurrengo zitak saihesteko koartadak
Setiatzaileen aipuak askatasunaz

Zugaz ez banago sabeliztuna naiz
Eta poema bateko hesi itsu batek bezala hitzegingo
dut iluntzean
Eta hilen elderrak jango dit bihotza
Eta karroinak lehertuko zainak inongoa ez izateko
gehiago

Errazegia da etsaiei egoztea zorionaren kalteak
Bizia baino ederragoa irudika zaitzaket oraindik

Zure eskuaren bila nenbilela argitu du goizak
Biktimarik gabe
Errukirik gabe
Etsita nago muga-lurrok bakera ezinak direla

Hustutako herriak

Etorriko zarete hustutako herriak hartzera
Eta kaleen izenari erreparatuta omendu eginen
gaituzue
Esango duzue erratu egin garela
Baina herkidego borondatea aitortuko diguzue
zeuen ohar-kuadernoetan
Etorriko zarete eta erreten bazterretan botatako
giltza sortak batuko dituzue
Hatzmarkak bilatu inoiz guk maite izandako
gorputzetan
Eta jabetza agiriak berritu
Jabe berriak izango dituzte aurrerantzean zorriek
eta egunsentiak
Poliziak zainduko ditu gure poemak
Aspaldiko ereserkiei aspaldiko mintzairari lotuko
dizkiezue zeuen gogoak — arima
setiatuak —
Etorriko zarete eta mendigain elurtuak miatuko
dituzue
Zorionetik ihesi mugalari izuturik badenentz
Eta esango duzue « aurkituko dugu bake

hitzarmenak egoki
zeinek idatzia,” bihotza! “ izango da estreina
jalgigo zaigun maitasun hitza »
— Aitorpen sakon bat eta libertade tolesgarria
Ezpondetan gorde eskutitzek murgildua —
Etorriko zarete eta kanposantuan ezarriko dugu
azken gotorlekua
Begibiko fusilek idazmakina totelen pare
Tekleatuko dute zuen bizkar hezurren kontra
Beste edozein sasoitan baino arrotzago mintzatuko
gatzaizkizue
Hilarrietako zenbaki bikoitietarik
Eta esango duzue « mende hartu ditugu, amaitu da
belaunaldi hori, hilak
defenditzearren idazten zuten barren
»
Eta zerraldoen talaietarik begiztatuko dugu bailara
keetan
Eta ezerbage — min erre bategaz —
Suari emandako geure etxeetarantz jaitsiko gara

Saminen barnetegi

Zanga honetatik irteteko zerez ekin, bihotzez herragaz
Inoiz ezintasun errime hau amaituko da
Eta horma arrakalatuok eta sentimentu atzenduak
Jaso beharko dira berriz
Konturatu naiz itoei ikasitako hizkuntzan mintzo naizela
Etsaiaren autobiografia ari naiz idazten
Eta mehetzen ari da nire argudioaren indarra
Zer dezake hezur hautsi batek nire arrazoibidearen urkamendian
Zer dezake gizon baten goseak nire askatasunaren paretan
Denok gara arbaso
Bertotik bai baina ez dugu bertara tiro eginen hurrengoan ere
Inoizko denboran sosegatzera egin beharko dute lasterkarien hiriok
Gu ultimatumei erantzuteko gagoz
Kondenatuari ukatu azken aukera gu gara

Izan ere badira deiadar batean baino adieraz ez litezkeen maitetasunak
Etxe lurmendatuen aurrean baino irakur ez litezkeen manifestuak
Eta gogora berantegi ekarritako gorputzak
Etxekoek ez gaituzte gehiago aldeztuko
Eta ibaiaren erriberak jitoak daramatza
Daitekeena da helburu zehatz bat aukeratzea hegazkinek
Jagon gabeko azken zerutik, baina amarratuta dagoz

Talaia galduak-2

Maite zaitudala badiot min eman nahi dizut
Iritsi garela dirudi hilkintza laster amaituko da
Arrotz egingo zaigu etxea eta maite dudanaz
idatziko dut orduan
Kale honen beste aldean zer dago
Zuk eta nik ez dugu berdin sufritzen
Nigandik urrun lehertu dira zure zainak zugandik
urrun maiztu nire adiskidantzak
Tartean basamortuak dagoz demokraziak dagoz
herri kisuztatuak
Ibaiko erdokatan itoek besoaz seinalatzen dizkidate
Harrotutako hiri-sarrerak zubi altxagarriak
Ez daukat armarik sehaskan ezkutatzeko
Askatasun itsustu bat besterik ez bantustan atzendu
bat besterik ez
Zein banderarenpean bataiatuko dugu maitasuna
bigarrenez
Zein uretan zein haitzarriren bila
Proklama eder bat kopiatuko dut zure ireki
guztietan irakurribako txatalak ageri
dira

Gagozanak gagoz
Gurean ez da soldadu ezezagunik handizkako
askatasunik
Erraz dira desartikulatzen nire sentimentuak
Min eman nahi dizut poema bateko trintxera
estalgarritik
Ezpaldutako arbolen etorbideak dauzkat, zeru bat
Gauez ureztatzen den futbol zelai bat bezalakoa eta
uzteko karguak
Gaizki egiten ditut zubiak gaizki idazten dizut gaizki
maite zaitut bakealdi egoskabe
honetan
Zamaketariak okinak koldarrak gagoz
Gagozanak
Ibaia garbitzeko heldu den idortearen zain
Ikasiko dut magalean zure soina nola batu,
bizkarrera nola ekarri
Isiltzen banaiz iduriko du minik ez dela hemen
Zorionaren piketeak jabetu direla lantoki guztiez
muino guztiez kaleez
Eta nik min eman nahi dizut maite zaitudanean

Lurra kendu

Nire maitetasuna menia bada zurea ultimatuma
Ez daukagula akordua baino arma azkarragorik
Eta zahartzen ari garela diot lagunari
Nahi baino hildako gehiago nahi adina hilda ez

Nire maitetasunak ezin du inperioen kontra eta zure
bihotzean paldotu
Gure ondorengoek ezagutuko ez duten bakeari
idazten dizkiot poemak
Zure bihotzari hutsegiten ez diodan artean haizeak
ez nau botako
Galarazia duzu ordea nire gelan sartzea
Emango nizuke gorputz hau baina atzerrira
fakturatu dut zorrak kitatzeko

Gerra zibilak ez dira deklaratzen
Egunerokora ekartzen dira
Gero, hamar urte barru, tokiz aldatutako itsaso
batez jabetzen zara
Eta galdu egin duzula bizi zinen lurra

Hildakoak piztearen onurak ez daude indarrean
Segizioak gizentzeko premian dira
Baina bakarreko armadak baino ez gara
Eta arrotz niri zure arima
Zulogileari deituko diot begizulook lurrez
berdintzeko
Nonbaiten tinkatu beharko dira gurutzeak gero
Eta elkar adiskidetzeak eztabaidatu
Nork ipiniko dio izen eder bana hilarri bakoitzari

Asko dira itoen gorazarrez tatuatutako bularraldeak
Eta ugerrak jandako aiztoak dira nire galderak
Nor biziko da eldarnio sukoia jabaldu ostean
Nork zarratuko du hilotzen euskaltegi hau
Mezulari saldoak pasatzen dira lerro batetik bestera
Maitasunaren aterpe balakatuan
Eta ez dugu inork traiziorik aipatu nahi

Maita zaitzakedan gerra bat bakea niretzat

Galera onartuak

Pausatu eta fitxategiak orrikatu ditut lur honen aroak bezala
«Banator» ahoskatzeaz bat haztatu ditut minaren hornizioak
Eta arrubioa jalgi zait bihotzeko zuloetatik
Gaulehenean

Zer naizen dioten dokumentuak galduak dira izenpeak akordua
Aldioro hazi beharra daukat belarra bezala itute ilun bat bezala
Eta zure gorputza existitzen ez den animalia da bulego honetan
Bi bider irakurri dut zure izena desagertuen zerrendan
Ez zintuzket galdu nahi

Aitortu dizut bizitzea aldezten duela bakardadeak
Orduak agortu dira eta urteak bihurritu hestemintzetan
Iritsi gara

Pilatu ditut ogasun aitorpenak argiketa paperak
Suari hurbiltzen zaio zerua
Oinpean lur hau ikara
Heldu den neguari aurre egiteko beste adore izango dugu
Txipiak dira hiltzen diren gauzak

Galtzeko lurrak

Bihotza zigor-zelda da guretzat, zigor zeldak dira
Sailka litezkeen galerak pendizak
Sailka litezkeen inbentarioak, larderiaz jagondako bakea
Ikurretara ekarritako soraiotasun bulkadak
Izen bi behar genituzke denok etxe bi muga lerro bi maitasun bakarraren hegian tinkatuak
Ihesi denak ez ditzake entzun geratzeko egiten zaizkion deiak
Denok aldatu behar genuke ibilbidez txarrantxazko hesiok ebaki kostako bidean
Almitzari eskaini gorputz nekatuok maite dugunarengatik hil
Ni ari naiz ordea zuen poemak idazten
Ibai berean ikusten ditut flotatzen soinatal anitzak abantean
Neure ezintasuna eginen dut negar iheslarien lorratzak ezabatzeko
Gure nortasun agiriak eginen ditut negar ez da aisa beratzen geroa

Gugaz bizi zarete
Gera zaitezte gugaz gau osoan bizitza osorako gugaz geratzera bazindoazte legez
Ez zaituztegu salatuko, orube berean maite izandako ameskaizto bi
Ez dizuegu opa akorduetan gure bihotza leher dakizuen
Ez dizuegu opa ezein patiotan desarmatzerik
Ez zaituztegu salatuko
Gure negarraz beste eginen dugu
Gure odolaz beste eginen dugu
Gure libertadeaz beste — bonsai irendu hori —
Gu bakarreko lurraz beste eginen dugu alde biko ibaiez beste
Orain hau kitatzekotan ederra behar du zuen geroak
Zuek ez dituzue inoiz nire poemak idatziko

Mendi-negarra

Zuk esanda dakit banaizena
Ibaiak ur-hesiak ditu bazterretan
Urkiagatar Estepan, Sid Vicious, Susana Arregi
ezagutzeko zabalik dagozan leihoak
Bertatik ikus gaitzakete hondar zakuz ezponda
berritzen
Mugalari jazartuak gordetzeko ginoan
Iristen da ez deirik ez txostenik ez den unea
Lurra dorre bat bezala eraikitzekoa
Jendeak nora doan badakiena minaren bihotzera
landatuak bagina legez

Zuk esanda dakit banaizena
Ez ninteke bizi bihotza euskal etxe bat balitz bezala
Beti bestelako auzoei egotziz adorearen zama,
zorionarena
Ez ninteke bizi urondo miatzen poema batean
atoitua, almitz azaua da nire
libertadea
Uholak itsustu zoztorrak defendituko ditut
Gauaren ubera dragatze isilean

Onartzen dut itoek hiriko irteerak, loa jagon
diezaguten
Lur urasetuan biziko garela

Zuk esanda dakit banaizena
Lainoa altxatu du eta haitzarriak sumatzen dira
behean
Hitzak hilik datoz pareta atzenduetara berriz balaka
ditzaten
Ez daukagu beste armarik bakartasun hezigaitz hau
berresteko
Gor jaulkitzen da herra nire besondoetatik
Zure minari eutsi nahi diot orube abandonatuetan
Ezerezean gora igaiteko diren zubiotan
Non da orain larderiazko gorazarrea, denok
elkartzekoa zen epaia

Zuk esanda dakit banaizena
Esku lagunkoien aurrean ate giltzatuak gagoz, ohar
basituak
Gure itzalak derrota txipiez ari dira estrata
urpetuetan
Laino-tutuak geure neurriko olatuen pean lo
harrapatu gaitu

Euren izenaren tirainari lotzen natzaio goizero leihotik
«Susana!», «Sid!», «Estepan!»
Eta oraindik banaizen egiaztatzen dut, alboan zaitudan
Gero hainbatgarrenez lur laketu ezin bat agintzen dizut, buruz buruko itzulmina